A1294

herrera

Geltokiko aterpeak

Mendi-Zaleak Elkarteak, hileroko ibilaldia martxoaren 19rako prestatu du.

Arabako Salvada mendikatera izango da irteera. Lendoño Goikoa herrian hasita, Tologorri, Ungino eta Eskutxi mendiak igoko dira gero Añes herrira jaisteko.

Ibilaldia San Luis plazatik irtengo da goizeko 7.30etan eta egun pasa honen prezioa 1.300 pezeta izango da.

Informazio gehiago nahi izanez gero deitu 39 11 74 telefonora (19etatik-21 etara).

Ez da hau Herrerako geltokiaren itxura arrunta, normalean jende gehiago izaten baita. Hemen igande eguerdiko itxura dakusagu.

Zoriontegiko aldapa konpondu berri dute. Zoriontegi Herreratik Altzara joateko biderik motzena da, baina orain arte nahikoa arriskutsua zegoen aldapa handia izateaz gain, oso irristakorra zegoelako. Azkenik, duela hiru bat aste, ubideak eta baldosak ipini dituzte.

Aspaldian jarri zuen Eusko Trenbideak enpresak tren geltokia gure auzoan. Oso zaharkiturik zegoela eta, duela urte gutxi geltokia goitik behera berritu zen. Baina denbora gutxira, geltoki berriak akatsik ere bazuela ohartu ginen herrerataррok, alegia, geltoki osoan ez baitzegoen aterpe bakar bat ere. Konponbide erraza zuen arazoa izan arren, urteak itxaron behar izan ditugu topo erabiltzaileentzako aterpeak jar ditzaten.

Aterpeak egiterakoan, erosoago egon gaitezen eserlekuak ipini dituzte. Beraz, hemendik aurrera ez zaigu hain gogorra egingo trenaren zai egotea.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

ARGAZKIA: XIMON

altza

Intsumisioa aztergai

Altzako Altzargi Gazte Taldeak jardunaldiak antolatu ditu bigarren aldiz *«Pakea Euskal-Herrian»* izenburupean hurrengo asterako.

Intsumisio gaia izango da hizpide asteartetik ostiralera hitzaldi, mahai inguru eta bideo emanaldiez lagunduta Casares Kultur Etxean.

Javier Huiciren *«Testimonio de un insumiso»* hitzaldiarekin hasiko dira jardunaldiak hilaren 21ean 19.30etan. Asteazkenerako bideo-forum interesgarria iragarri da arratsaldeko 19.30etatik aurrera.

Ostegunean, martxoak 23, mahai ingurua izango da 19.30etan soldaduzkaren inguruan, bertan intsumiso, objetore, PSS eta agian soladuzkaren aldeko norbait arituko dira. Mahai inguruaren moderatzaile lanak Herri Irratiko Txema Auzmendiren esku egongo dira.

Azkenik, Ramon Ibeasek amaituko du *«La iglesia ante el Servcio Militar»* izenburupean eskainiko duen hitzaldiarekin. Hitzaldia ostiralean izango da, arratsaldeko 19.30etan Casares Kultur Etxean.